# BERRIGARA

3. zenbakia JARDUN Elkartea Bergara 1994, Otsailak 18



## Amaitu dira jolasak, Garizuman gaude





NIRE AUTOA BAZINA AUTO HAU IZANGO ZINATEKE.

OPEL CORSA
NIRE AUTOA

Patrocinador Oficial del Mundial de Fútbol USA 94

OPEL

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK HOBEAK, ESPERIENTZIAGATIK.

10º URTEURRENA

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44/45/46
BERGARA (Gipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoak: 79 0



UME

NESKA ETA
MUTIKOENTZAKO
JAUNARTZERAKO
ARROPAK

UDABERRI-UDARAKO
JANTZI BERRIAK

**Ferrerias, 34** **Telefonoa: 79 97 86** **ARRASATE**

# HIRU
## AROZTEGIA

• ATEAK • LEIHOAK • ZORUAK • PVC •

**Antigua auzoa, z/g ANTZUOLA • Tfnoa: 76 63 59**

# ZERBERRRIDA?

## XABIER GALLASTEGI

### *Hirigintza zinegotzia*



**- Zelan doaz Udaletxeko obrak?**

- Epeak kontrolatuta dauzkagu eta urte bukaeran obra bukatuta egotea espero dugu. Gure asmoa Gabonaterako bertara pasatzea izango da; inaugurazioa gerorako ere utzi daiteke, ez du horrenbeste garrantzirik. Orain ekipamendua (megafonia, ordenadore sarea, telebista zirkuitu itxia, altzariak.., etab) aztertzen ari gara, abendu aldera lanean hasteko moduan egoteko; oraindik ez dugu presupuestorik egin baina horretan gabiltza.

**- Desfaserik egongo da aurrekontuarekin?**

- Obra 601 milioitan adjudikatu zitzaion Construcciones Amenabarri baina lan hutsa bakarrik sartzen zen hor. Gero hainbat gastu gehitu behar zaizkio horri: zimentazioa hobetzeko (uste baino okerrago zegoen), ekipamentua edota Olaso Dorrearekin gertatutakoa. Azkenean 700 milioitik gora kostatuko da baina ekipamenduarena finkatu arte ezin da kantitaterik eman.

**"Urte bukaerarako Udaletxe berria izango dugu"**

# ITURRI ONETIK

## ITV tailer berria astelehen honetan zabalduko da Bergaran

Astelehenean zabalduko da Bergarako Ibilgailuen Azterketa Teknikorako tailerra Santalaitzen. Hasiera batean bertan dagoen autobus geltokiaren atzean jartzea aurreikusita bazegoen, hemendik irailera bitartean tailer probisionala Saizabal Autoelektrizitatearen ondoko lokalean jarriko da. Momentuz karril bakarra jarri eta 3.500 kg.tik beherako ibilgailuak pasa ahal izango dira. *ITV Luybas Bergara* tailerretik pasatzeko lehenbizi txanda eskatzea komeni da 76 04 90/04 91 telefonoetan. Ordutegia: 9.00-13.00 eta 15.00-19.00 (larunbatetan: 9.00-13.00).

# ESAN DUTE

"Gauza bat idazle izatea da eta beste bat bizimodua hortik ateratzea. Oso zaila da, are gehiago euskara moduko hizkuntza batean idatzi ezkero, baina, beno, izan daiteke, zergatik ez?..."

**JON SANCHEZ**
Amodiozko Gutunen lehiaketan 2. saria
EUSKADI IRRATIA

•

"Lotura estua dute prentsak eta politikak, prentsa libreak politikari egiten dion kontrapisuagatik, bere iritzi eta kritikak azalduz. Esan daiteke beste eskubide guztien sorreran dagoela espresio askatasuna eta komunikabideetatik zentsura guztia ezabatzea. Honek suposatzen du informatzeko askatasuna eta baita informatua izatekoa ere. Hori ukatzea ez ote da alderdikeria finkatzea?"

**RUFINA OLASAGASTI**
Kultur Jestorea
ARRASATE PRESS

•

"Azken 20 urteetan izugarri haunditu da errepideetan trafikoa, baina errepideak ez dira konpondu. Horren erantzunkizuna administrazioak du"

**G. MURUAMENDIARAZ**
SINTRAGUIko Idazkari Nagusia
EUSKADI IRRATIA

•

BERRIGARA

rrotalde Jauregia, 20.570 Bergara.
fnoa eta faxa: 76 03 97
**rgitaratzailea:**
ardun Elkartea
asterreka, 13. 20.570 Bergara.
: 76 08 19
**uzendaria:**
orka Elorza.
**rredakzioa:**
neko Azkarate, Eduardo Mendibil eta
ikel Elkoroberezibar.
**aketazioa:**
neko Azkarate eta Eduardo Mendibil.
**ublizitatea eta harpidetzak:**
lex Azkarate eta Gorka Elorza.
: 76 03 97
**olaboratzaileak:**
se Angel Mikeo, Estepan Plazaola,
iguel Angel Elkoroberezibar, Juan Martin
expuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain,
erea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon Ander
angoa, Mikel Lizarralde, Monika
elastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa
kuña, Asier Madinabeitia, Josune Iñarra
a Ane Miren Goenaga.
**rgazki laborategia:**
ol-Pol Argazki Taldea.
**ortadako argazkia:**
uan Antonio Unzurrunzaga.
**omikia eta marrazkiak:**
ittor Rodriguez, Gorka Ortega, Jon
varez, Jose Martin Ezenarro
a Julian Ezenarro.
**anaketa:**
antxangorri Taldea.
**irada:** 3.500 ale.
**nprimategia:**
ertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).
**opyright:** BERRIGARA
**ege gordailua:** SS 50/ 91
**SN:** 1130-6599
**ERRIGARA**k ez du bere gain hartzen
dizkarian adierazitako esanen eta iritzien
antzunkizunik.

Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



UN MUNDO PERFECTO
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00, 19.30
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30.



PERDIDOS EN AFRICA
Igandea: 11.30.



M. BUTTERFLY (B.O.)
Osteguna: 19.30.

## Zinea

▼▼ *Sin perdón* filmearen ondoren, **Clint Eastwood**ek eginiko azken filma. **Kevin Costner**i gaizkilearen papera tokatu zaio oraingoan; 7 urteko mutiko bat rehentzat hartu du eta Clint Eastwood bere bila atera beharko da. **Laura Dern** eta **T.J. Lowther**ekin.

▼▼ Bi gaztek abentura mordo bat igaroko dituzte Kenian egindako argazki safari batetan. Ihes egitera behartuta egongo dira eta ez dute ez irtenbide erreza izango. **Jennifer Mc Comb** eta **Ashley Hamilton**ek osatzen dute bikote protagonista.

▼▼ Benetazko istorio batetan oinarriturik, Pekinen destinatutako enbaxadore bat Operako diba batekin zelan maitemindu zen kontatzen zaigu. Sorpresa etorriko da gero... **David Cronenberg** zuzendari eta **Jeremy Irons** protagonista.

## Deiak

▼ **Hor Konpon** musika taldea gaur 11etan Pizinetako tabernan.

▼ **Komite Internazionalistak** antolatuta, Emilio Rodriguezen eskutik Chiapasi buruko hitzaldia eta argazki erakusketa asteazkenean 19.30etan Kultur Etxean.

▼ **Mendi irteerak.** Pol-Pol M.T.ko gazteek igandean Mandoegira irteera antolatu dute (8.30etan autobus geltokian). Hurrengo igandean, hilak 27, Gorla Alpino eta Pol-Polek Iturrioz-Pagoeta-Zarautz irteera iragarri dute.

▼ **Hitzaldia.** *"Gizonezkoen opresioa"*. Asteazkenean 7etan UNEDen.

▼ **Odol ematea** asteazkenean 19.00etan Seminarioko baxuetan.

## Ogia

▼ **Igandea 20:** Mizpildi.

## GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Larunbata 19:** Guallar/Irizar.
▼ **Igandea 20:** Estelal/Amezua.
▼ **Astelehena 21:** Mozos/Ruiz.
▼ **Asteartea 22:** Camacho/Azkoaga.
▼ **Asteazkena 23:** Puy/Español.
▼ **Osteguna 24:** Puy/Corcuera.
▼ **Ostirala 25:** Guallar/Irizar.


ZIRIPOT
Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

MAKAILO ETXEA
Makailau kazuelak gertatzen ditugu
Ibargarai 15

ONENA TINDATEGIA
Barrenkale 29, BERGARA

**Astelehenean zabaldu zen Kultur Etxean Bosniaren aldeko dirulaguntza jaso asmoz antolatu den eskultura eta margo erakusketa.**

# Bosniaren aldeko ARTISTAK

## *Bergarako 36 pintore eta eskultoreren lanak ikusgai Kultur Etxean*

Bosniaren Aldeko Bergarako Batzordeak herriko 36 artisten lanak (34 koadro eta 4 eskultura) bildu ditu erakusketa honetan eta lanak salgai jarriko dira oso prezio interesgarrietan. Dani Laskurain margolariak aipatzen duen moduan, *"dirua lortzeko ideiak aztertzen izan ginen eta honelako erakusketa bat antolatzea pentsatu genuen. Leben momentutik artista guztiek parte hartzeko interesa azaldu zuten eta eskertzekoa da egin duten dohaintza"*.

Lanak ez dira egin berriak eta Bosniaren egoerarekin ere ez dute zerikusirik; *"artistek gordeta zeuzkaten hainbat lan ekarri dituzte eta helburu bakarra, hori da, ahalik eta gehien saldu eta diru gehien batu, Bosniaren egoera ahal dugun neurrian hobetzen laguntzeko"* adierazi digu Laskurainek. Jendeak aukera zabala izango du estilo ezberdinetako lanak aurkitu bait ditzake.



12.000 pzta.tik 125.000 pzta. bitarteko prezioetan eros daitezke.

Prezioak, esan bezala, normalean baino merkeagoak dira. *"Horrela da, bai. Lan guztiak, gutxi gorabehera, benetazko prezioaren erdian saldu ko dira eta interesa duten guztiek Kultur Etxeko kontserjearengana zuzendu beharko dute. Aukera ezinhobea dauka jendeak margoak edota eskulturak eskuratzeko. Jasotzen dena S.O.S. Balkanes erakundearentzat izango da, erakunde honek Bosniara bidaltzen duen material guztiaren transportea ordaintzeko"*.

Lanen prezioa 12.000 eta 125.000 pta. tartean dago eta asteazkenerako jadanik 7 koadro salduta zeuden. Erakusketa Kultur Etxeko erakusgelan datorren otsailaren 27ra arte egongo da ikusgai.

Bestalde, astelehenean ekingo zaio galtzen ez diren janarien, medikamenduen eta higiene eta osasun materialen bilketari. Bosniaren Aldeko Bergarako Plataformak lokal bat hartu du guzti horiek biltzeko. Zunbeltz kafetegiaren ondoan dago eta ordutegi honekin izango da zabalik: goizez, 10etatik 12etara eta arratsaldez 6retatik 8etara; larunbatetan, 10etatik 0rdu bata bitartean. Sierven konbentuan ere utzi ahal izango dira (ordutegi berdina) eta horrez gain toki publiko hauetan: Zubiaurre eta San Lorentzoko estankoak, Agirrebeña zapatadenda eta Zuhaizti taberna.

**Pintura edota eskultura lantzen duten bergarar artista gehienen lanak ikus daitzezke, tartean J.M Lazkano margolariarenak**

TAPIZERIAK
MOKETAK
ALFONBRAK
GASTON Y DANIELA
Kruz Gallastegi, 9
☎ 76 07 37

anezka
Udazkenerako oihalak eta lenzeria
Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25

## Bertako produktuak txapeldun

Mundu zabaleko herri guztiek, txiroek eta aberatsek, beraiek dituzten errekurtsoak saltzeko merkatuak dituzte. Hauek batez ere bi funtzio betetzen dituzte; hiriko prezioak erregulatu (Ordizia, Elgoibar) eta bertan ekoiztu diran produktuei irtenbidea eman, errekusto ekonomiko honek sortzen dituen sarrera ekonomikoak bertan gera daitezen.

Bestalde merkatu guztiek beraien berezitasunak dituzte, Brasileko Sao Paulo herriko merkatua bisitatzen badugu, herri horri buruzko hainbat gauza ikus ditzakegu, nekazariak nolakoak diren, zein kalitate eskeintzen duten, tratua nola egiten duten ("A quatro. Es muinto caro..., a tres"), zein bizitza-maila dagoen, zein gustoko duten dantza eta musika, ez da batere arraroa erosketak egitera doana edo saltzaileren bat irratiren baten bolumenaz dantzan ikustea, beraien elikadura zein produktutan oinarritzen den mango, batata, pina, ardikia, etab.

Europa erdiko merkatuetara bagoaz berriz, nolako inbertsioak egin dituzten produktoen adierazle garbiak izateko, kalitatemaila nola zaintzen duten, bertako produktoei ematen dieten babesa, tratua egiteko estiloa, hemen erosleak ez du traturako horrenbeste ohiturarik, merkatuara bere denbora librea betetzera doa, oso toki atsegina delako, beraz eskatutakoa ordaintzen du eta kitto, jazkerak, prezioak, etab.

Jarritako adibide biak arras ezberdinak ditugu baina kasu bietan herri horien adierazle garbiak dira, eta eguneroko bizitzan herritarrek duten ongi-izate maila erakusten digute.

Bergarara etorriz, nekazal sektorea oso egoera txarrean dago, hamabost urte barru, dauden baserritarrak zahartu egingo dira eta baserriko produktoek galtzera egin Administrazioak neurri imajinatiborik sortzen ez badu; horien artean Udaletxeak merkatuetan duen interbentzioan, politika egokia garatzea, hau da, bertako produktoak bultzatzea eta herritarrei zerbitzu ona eta erosoa eskaintzea ezinbestekoak dira baserri eta bere produktuei eutsi nahi badiegu.

Honetarako herritarrei bertako produktoek duten kalitatea eta ezaugarriak helerezi behar zaizkie. Gaur egun baserritarrak batzutan, ez du baliabiderik bere produktoarekin telebista eta irratiko propaganda guztiari aurre egiteko. Adibidez, baserriko esneak, PMIk duen publizitate guztia eukiko balu, mundu guztiak jakingo luke sukaldaritzan erabiltzeko, fritoak, postreak, etab. egiteko askoz hobea dela. Beraz erosleari hori garbi azaldu behar zaio. Beste batzuetan berriz, hemengo produktuek, berakatzak adibidez, ez dute kanpokoek duten presentzia berbera, eta erosleak atzera egiten du, baina inork ez dezala pentsa gusto gutxiago dutenik, alderantziz baino. Zer esanik ez sagar, tomate, madari eta orokorrean hemengo frutarekin; bistara onenak ez badira ere jateko konparaziorik ez daukate. Zalantzarik gabe hemengo produktuak eskeintzen du prezio eta kalitatearen arteko erratiorik onena eta hori herritarrari ezagutarazi behar zaio.

Gauzak dauden moduan, ezinbestekoa da Udalak marketing hori eta kultura hori zabaltzeko giza baliabideak eta kosto ekonomikoak bere gain hartzea bertako produktoari orokorrean laguntzeko. Ez dira bakarrik baserritarrak, denok dakigu merkatu batek ondo funtzionatzeko eta jendea erakartzeko zerbitzu osoa eskaini behar duela, harategia, arraindegia, egunkari postua, kafetegia, pastak, olibak etab. ahalik eta postu gehien euki behar ditu. Eta aipatutakoak bultzatzeko merkatuak ezinbestekoa du gestorea, bestela lortuko den bakarra tokiz aldatzea izango da eta ikusten da horrekin ez zaiola irtenbiderik ematen bertako produktoaren komerzializazioari.

Bergaran aspaldi batean hasi da merkatu berriaren eztabaida, eta bi urte pasatu dira etxea amaitu zela. Alkateak dioenez oraindik ez da bertako komertzianteekin akordioetara iritsi, prezioan ez direlako adost jarri. Inbertsio honetan 300.000.000 pzta. geldirik egon dira bi urtetan zehar, PNV eta PSOEko gobernu ekipoak konponbidea aurkitzeko gaitasunik euki ez dutelako.

Ez naiz eztabaida politikoetan sartuko 1.go solairua bota behar den ala ez, nahiz eta garbi utzi behar, nahiago nukeela estalita balego balkoirik lagatzeke. Baina momentuan horrek ez dit ardura, berba egin dezagun komertziante, anbulante eta baserritarrekin batera, azter ditzagun hauen proposamenak eta eman diezaiogun irtenbide orokorra merkatuari. Aparkaleku ona, marketing eta gestiorako baliabideak, kalitate maila ezberdinen erakusleak argitaratzeko zerbitzua, garbitasuna, eroslearen eta saltzailearen erosotasuna etab.

Horrenbeste langabezia dagoen une honetan herri honek duen errekurtso ekonomikoak alferrik galtzea axolagabekeria izugarria da. Vitoriano Gallastegi eta bere ekipoa ez dira gauza izan gestio hau behar bezala burutzeko, herri guztiaren kaltetan.

GERMAN MURUAMENDIARAZ
(HBKO ZINEGOTZIA)

## Tiiira biraka

JULIAN EZENARRO





Lazkanori elkartasuna adierazteko protesta ekitaldiak burutu dira astean zehar Bergaran eta Donostian.

# Sententziaren zai Joxe Lazkano intsumisoa

## *Mozio alternatiboa onartu zuen Udalbatzak asteleheneko Plenoan; Bergarako Objetore Talde Antimilatistak aurkeztutakoa ez zen botatu*

Asteazkenean epaitu zuten Donostiako Auzitegian Joxe Lazkano 27 urteko bergarar intsumisoa. Fiskalak 18 urteko kartzela zigorra eskatu zuen eta defentsak, berriz, absoluzioa. Joxeren aldeko testigantza Jose Mari Galan irakaslea, Xabier Zubizarreta apaiza, Juan Martin Elexpuru idazlea eta Ana Coranti koadrilako lagunak egin zuten. Horrez gain, Joxe Lazkanok Bergara eta Gasteiztik joan eta Epaitegiaren inguruan bildu zen jende dexenteren laguntza izan zuen. Epaiaren sententzia 15 egun barru jakinaraziko dela espero da.

Bestalde, astelehenko ez-ohizko plenoan, intsumisioaren inguruko mozio alternatiboa onartu zuten EAJ eta EAk, HB kontra eta PSE-EE abstenitu egin zirelarik. Lehenbizi BOTAko kidea den Jesus Mari Kalboetxeagak hitzegin zuen, zinegotziak eskakizun sozialekin bat egin eta Udala, Elorrion gertatu den bezala, intsumiso deklaratzeko eskatuz.

BOTAren mozioak Udala Joxe Lazkanorekin solidarizatzea, bere absoluzioa eta preso diren intsumisoen askatzea, juizioaren gastuak eta bergarar intsumisoei egingo dizkieten epaienak ere bere gain hartzea, Konzientzia Objezioaren Legea errefusatzea, ordezko zerbitzua betetzen ari direnei lanik ez ematea, ejertzitoarekin ez kolaboratzea eta akordioaren kopia bat Defentsa Ministeritzara bidaltzea eskatzen zuen.

### Mozio alternatiboa botatu

Jarraian EAJ eta EAren mozio alternatiboa irakurri zen. Mozio honek Udalaren beharrezko soldadutzarekiko errefusaketa jasotzen zuen baina soldadutza bete nahi duten gazteei Udalak oztoporik jarri gabe eta ejertzito profesional baten aldeko eritzia azalduz. Era berean, Kontzientzia Objezio Legea eta Ordezko Zerbitzu Soziala kentzea eta Joxe Lazkanoren absoluzioa jasotzen zen, intsumisioa despenalizatzeko eskatuz. Ohizkoa den bezala mozio alternatiboa bozkatu zen lehenengo eta bere onarpenak baliorik gabe utzi zuen BOTArena.

Boto esplikazioan, Jesus Mari Garitanok (HB) BOTAren testua onartzen zutela adierazi zuen eta horregatik eman ziotela ezezkoa mozioa alternatiboari. Era berean EAJ kritikatu zuen, lehen OTANen alde azaldu eta orain gizarte desmilitarizatu baten alde egiteagatik. Bere ustetan gizartea alderdi eta instituzioak baino aurreratuagoa dago bere eskakizunetan.

Alvaro Esparzak (PSE-EE), berriz, nahiz eta intsumisioaren despenalizazioaren alde azaldu eta arazo soziala aitortu arren, objetoreen kolektiboek Gobernuarekin arazoari irtenbide bat aurkitu beharko diotela adierazi zuen.

### BOTAren balorazioa

Azkenik, BOTAk, Udalak soldadutzaren informazio eta aholkuratze zerbitzua mantentzen jarraitzea eta aldi berean ejertzito profesional baten alde azaltzea kritikatzen du mozio alternatiboaren inguruko idatzi batetan, EAJ eta EAren mozioak kontresanak dituela argituz. BOTAkoen esanetan, *"uste dugu ez dutela balio intsumisoen aldeko hitzak. Arazoak eginkizun kontsekuenteak eskatzen ditu eta, Elorrioko Udalarekin bezala, benetazko errefusaketarekin bakarrik amaitu ahal izango da arazo honekin"*.

### ◆ Arrantza baimenak eta bilerak Oilagorran

Aurtengo arrantza denboraldirako baimena atera nahi duten guztiek martxoaren 4a baino lehen Oilagorra elkartera jo dezakete, arratsaldeko 8etatik 9etara. Bestalde, bihar larunbata eta martxoaren 12an bi bilera ireki izango dira 5etan Oilagorran bertan, besteak beste, arautegi berria, 1994 denboraldiko arrantza lehiaketa, aurreko urtearen balorazioa eta galdera eta eskariak aztertuko direlarik.

### ◆ Terapia Okupazionala

Jubilatuetan ematen diren ikastaroez gain, dantza, keramika, dekorazio rustikoa edota automasaje ikastaro berriak antolatzeko aukera dago. Interesatuek izena eman beharko dute otsailaren 25a baino lehen (500 pta. ikastaro bakoitzeko).

### ◆ Mariaren Lagundiko oharra

Mariaren Lagundia Ikastolak dei egiten die bertako ikasleen gurasoei, asteazkenean, 7etatik aurrera guraso eskolari jarraipena emateko. Gaia semealabengan "autoestimazioa" nola sortu izango da. Koordinatzailea: Victor Vitoria.



Iturkinen Elkarteak norberaren instalatzailearengana joteko eskatzen dute.

## Iruzurraren aurka

### *Iturkinek gasaren inguruan engainuzko lanak salatu dituzte*

Gipuzkoako Iturgintza, Gas, Berogailu eta Antzeko Enpresen Elkarteak jakin arazi duenez, Gipuzkoan enpresa batek engainuzko lanak egiten dihardu. Bilbon eratuta omen dagoen enpresa horrek hainbat pieza (gomak edota manoreduktoreak) kadukatuta daudela eta aldatu beharra dagoela adierazten die bezeroei. Iturkinen elkarteak ezeztatu egin du piezak kadukatuta daudenik.

Elkarte honen ustez, *"gas instalazioen mantenimendua guztiz gomendagarria da, baina ez baimendutako enpresa batek egiten duenean; eta inola ere ez egoera onean dauden eta funtzionamendu ona duten elementuak ordezkatzeko"*. Beraz, enpresa edo teknikoren bati konponketak egiteko baimena eman baino lehen, goian aipatutako elkarteak norberaren instalatzailearekin edota konfiantza gehien merezi dionarekin kontaktuan jartzeko gomendatzen du. Errebisioak Enpresa Hornitzaileak egingo dute 4 urtetik behin edota fugaren bat edo bestelako akats bat bat frogatzen denean.

MINER
ardoak
Biltegiko telefonoa: 76 41 41
Ardo onak jakina

ANTIA
ARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

IXUKUN
BEREZITASUNAK
Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

IBARGUREN PENTSUAK
Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.
San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA


Aurkeztutako lanek emakumea gaur egungo gizartean isladatu beharko dute.

# Emakumearen argazki lehiaketa

## *Emakumearen Egunaren inguruko ekitaldien barne*

Bergarako Gizarte-Ongizaterako Udal Batzordeak, Emakumearen arloko ekintzetarako taldea eta Pol-Pol Argazki taldearen laguntzaz, emakumeei buruzko lehen argazki lehiaketa konbokatu du, martxoaren 8aren inguruan antolatuko diren ekitaldien barne. Lehiaketaren gaia emakumea gaur egungo gizartean izango da eta edozein bergarar afizionatuk har dezake parte (partaide bakoitzak 4 argazki bidali beharko ditu). Laboratorioko edozein teknika onartuko da eta modalitatea zuri-beltzean edo koloretan izan daiteke. Lanak otsailaren 28a baino lehen Udaleko Gizarte Zerbitzuetara ekarri beharko dira eta aurkeztutako argazkiekin erakusketa egingo da Pol-Polen martxoaren 5etik 13ra bitartean.

Sariak honako hauek izango dira: lehen saria 20.000 pta. eta trofeoa, bigarrena 15.000 eta trofeoa eta hirugarrenak, berriz, 10.000 eta trofeoa. Sari banaketa martxoaren 12an egingo da Pol-Polen. Argibide gehiago Irizar Jauregian, Kultur Etxean edota Pol-Polen.

### ◆ ELA eta LABen manifestapena Bilbon

Bihar larunbata LAB eta ELAk konbokatutako manifestazio nazionala izango da Bilbon. Beheko Estaziotik autobusak aterako dira 16.00etan.

### ◆ HBren asanblada asteazkenean

Asteazkenean, hilak 23, Maltzaga-Urbinari buruzko Herri Batasunako asanblada izango da 7etan Artatse Elkartean. Bideo bat izango da eta ondoren eztabaida.

### ◆ Pala txapelketa

Kirol Zerbitzuak IV. Binakako Pala txapelketa antolatu du. Partiduak Osintxun jokatuko dira martxoaren 13tik aurrera. Izen-ematea martxoaren 8an bukatuko da (1.000 pta. bikote bakoitzeko, 2.000 Kirol Zerbitzuko bazkide ez direnak).

### ◆ Eguzki, peajearen kontra

*"A-8 autopistan, peajea kentzearen alde"* lemapean, Eguzki talde ekolojistak Bilbo-Behobia autopistan peajea kentzearen aldeko kanpainari ekin dio. Bihar larunbata Eguzkiren idatzi bat banatuko da autopistako peajeetan.

Garnish
Bitxitegia
San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

Pepelu
Ileapaindegia
Zurradero, 2 behea.
☎ 76 43 07

TABERNA ZAHARRA
Jatetxea
Bazkariak eta afariak
Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR

ZAPELAITZ
Taberna
Eguneko menuak astelehenetik ostiralera
San Lorentzo 25, BERGARA

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

*Elikadura*

# Karnabaletan torradak eta pellak



**IGNACIA ETXABE**

*(sukaldaria)*

**Ignacia Etxabe bergararrak 33 urte daramatza Zumelaga jatetxean sukaldari. Ignaciak torradak eta pellen sekretuak azaldu eta mutur finendako errezeta ezinhobea eman digu.**

**- Ignacia, zergatik gertatzen dira torradak eta pellak urte sasoi honetan?**

- Egia esan, ez dakit baina nik behintzat horrela ezagutu dut beti. Izan bizi guztikoak dira baina jatetxean ere karnabaletan bakarrik prestatzen ditugu; 15 bat egun lehenago hasten gara eta jendeak batez ere aste honetan eskatzen ditu. Bestela, urtean zehar ez ditugu egiten eta etxeetan beste horrenbeste gertatuko da ziurrenik.

**- Ze diferentzia dago pella eta torraden artean?**

- Jendeak askotan nahasten ditu baina torradak ogiarekin egiten dira eta horrez aparte kalorietan ere badute aldea; torradak kaloria gehiago daukate. Eta jendeari normalean pellak gehiago gustatzen zaizkio. Errezago jaten dira; batzutan masa fin samarra geratzen da eta hori askoz ere goxoagoa da jateko. Aurtengo karnabaletan ere pella gehiago egin ditugu, jendeak ez du horrenbeste torrada eskatu.

**- Eta zein errezeta jarraitzen duzu?**

- 4-5 pertsonendako pellak gertatzeko litro bat esne kanela batekin 10 minututan irekitzen jarri. Ondoren, flan potax sobre bat, bi koilarakada ondo beteta irin eta beste 3 azukrearekin bota. Masa egin, ebaki, arraultzetan eta irinetan pasau eta frijitu.

Torradak egiteko esnearekin batera, kanela eta limoiaren azala jartzen da irekitzen (10 bat minutu). Esne hori epeldutakoan, ogia xerradatan bota eta ordubete inguru hortan laga. Azkenik, arraultzetan pasau eta ondoren frijidu.



Ignacia Etxabe eta Juan Antonio Franco Zumelagako sukaldean lanean.

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80 - 76 06 37

TXURRUKA AUTOAK
Taxi eta mikrobus zerbitzua.
Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.
Era guztietako erreparazioak.
Garbiketak, etab...
Aitz Iturri - San Lorentzo auzoa BERGARA.
☎ 76 12 36 - 76 09 30
Agentzia
PEUGEOT-TALBOT

# Amodiozko Gutunen II. Berrigara Lehiaketan

# SARITUAK

**Amodiozko gutunen II. BERRIGARA lehiaketako sariak pasa den astelehenean banatu ziren Zabalotegiko aretoan. Lehen saria Ekhiñe Egiguren 15 urteko donostiarrak jaso du, *Michelle* izeneko gutunarekin. Bigarren saria eta bergarar onenaren saria Jon Sanchez *Irene Vs. Katti* lanarekin izan da. Lehiaketak bi sari ematen ditu, baina gutunen kalitatea ikusiz epaimahaiak akzesit bina banatzea erabaki zuen. Horietatik bat Oihana Etxeberria atxabaltarrak *England* lanarekin jaso du eta bestea, Roberto Izagirre eibartarrarentzat *Bi maitasun amets* gutunarekin izan da. Sari emate ekitaldian irabazleek euren gutunak irakurri zituzten. Horretaz gain Mikel Markez abeslaria, Jose Mari Karrere ipuin kontalaria eta Andoni Serrano olerki kontalaria ere aritu ziren. Guztira aurtengo lehiaketara 69 gutun aurkeztu dira, horietatik 25 bergaratik bidalitakoak izan dira. Iazko lehiaketan bezala aurten ere emakumezkoek (41 gutun) gizonezkoek (28 gutun) baino gutun gehiago idatzi dituzte. Hurrengo orrietan irabazleen gutunak irakurtzeko aukera izango duzue eta bide batez, azukre koskorrari zela idatzi behar zaion ikas dezakezue.**

## Ekhiñe Egiguren
### *1.go saria*

***Ekhiñe Egiguren 15 urteko donostiarra da eta lehen aldiz parte hartu du lehiaketan. Partehartzaile guztien adinak begiratuz donostiarra da gazteena. Bain argi dago amodioak ez duela adin mugarik.***




Lehiaketan sarituak. Ezkerretik eskumara: Jon Sanchez, Ekhiñe Egiguren, Oihana Etxeberria eta Roberto Izagirre.

### *Michelle*

Parisen
1968-ko Urriak 2

Arthur maitea:

Urratu dizkik arrats gorriak hodeiertzeko zokorik ezkutuenak ere eta bazirudik lokartzen ari dekela, ahultzen, hiltzen,... lanbro misterios batean kulunkaturik, ilunaren taupadetan galbideratzeko irrikaz.

Baduk denbora lorategian begizta ohi genizkian enarak ikusten ez dizkiatela. Hostro orbeldu deusez bat zelaira jausi zen goiz hartan bertan aldegin ziaten, zeruan arraia labur borobilduak sortuz, larrazkenaren adats eztiak arnasteko ere astirik hartzeke.

Azkena oparitu hizkidan larrosak zimeldu dituk, Arthur. Galdu diate arestian senti hezakeen leuntasuna eta zuritasun definigaitz hura desagertu duk jada, mendi bazter lohituen antza hartu ditek petalo hauskorrek.

Eta hemen naukak, Parisko parke bakan batean, apika ahazturik edukiko hituen ilunabar bioleta haiek banan-banan gogoratu

nahirik. Ikus dezakeat oraindik hire begien diztira xarmant hura. Geroztik ez dizkiat izarrak kontatzen. Haien leinuruak argi faltsu bat besterik ez zirudik eta noizbait eguna ezagutu ziaten begiok ilunaren esklabu bi dituk orain, ez bide ditek karrikarik aurkitzen gure amodioaren testigu izandako zubi zaharkituetan barna.

Ezin haut ahantzi, Arthur. Gau haiek betidanik amestu izan nian maitasun amaigabe bat izan hituan. Hire ezpain gozoen uhin hezeetan dantzatzen erakutsi hidan eta nire bularrek besarkaturik jarraitzen diate oraindik belarrira xuxurlatu hizkidan fereka xamurretara.

Ezin haut ahantzi. Hire masailen gorritasunean galtzen zaizkidak egindako gogoeta txuri-beltzak eta zatika etortzen hire ahotsaren oroitzapen nostaljidunak. Hi gabe arrats guztiak grisak dituk. Bizitza egunen lubakietara amildutako negar-anpulo gazi bihurtu eta denbora ez duk iraganaren errepikapen akatsgabe bat besterik. Errutinaren hatzapar sendoek erabat odol-hustu ditek nere izana eta nire ezpainek ez ditek irribarre zabal baten kurbaduretara moldatzerik lortzen.

Ezin haut ahantzi. Gero eta gehiago desio diat hire gorputzaren hurbiltasuna eta maite dizkiat salako pianoan jo ohi hizkidan CHOPIN-en nokturnoak, hi heu maite haudan bezala.

Jadanik itsatsi duk hiria gauaren amaraun poligonaletara. Ilunak estali dik Mont Martre-ko plaza ttikia; gure lehen musuen ase ezina ezagutu zidaten koadro guzti haiek beltzez margotu dizkik piskanaka-piskanaka.

Han itxarongo haut. Oleozko paisaia nimiñoen artean, nere izena airean zizelkatuko diaten hire eskuak sentitu arte.

Han edukiko nauk, Arthur, hire ezpainak uneoro oroituaz.

Hire zai. Eternuki.

Michelle



Ekhiñe Egiguren donostiarrak eraman du lehen saria.

## Jon Sanchez
### 2. saria eta bergarar onena

***Jon Sanchez 18 urteko bergarrak badaki zer den sariak lortzea amodiozko gutunen lehiaketan, iaz bergarrar onenaren sari jaso baitzuen. Aurten sari hori jaso ezezik bigarren saria ere jaso du.***

### Irene Vs Katti

Pello maitea:

Ezkutitz hau irakurtzen duzunerako urrun egongo naiz jadanik, agian beste gizon baten alboan, seguruenik, bere esku urduriek nire ditietan bortizki zirri egiten ariko direlarik. Baina nire irudimenean, zure esku trebeak izango dira bularra mantso-mantso, erritmikoki ferekatzen didatenak, sarritan mihi jostalariaren laguntza jasoaz; eta honetan pentsatzean, nire ohekide traketsa poztuko duen gozamenezko hasperen bat irautziko dut infinitoruntz, zuk entzutea nahi banu bezala.

Oso zaila egiten zait hau idaztea, baina nire barnekaldea estutzen duen korapiloa askatzeko daukadan modu bakarra dela uste dut, eta horregatik eseri naiz gaur, jadanik zuria ez den paper honen aurrean. Irene da nire izena, zuk Katti ezizenaz ezagutzen banauzu ere. Bai, Katti naiz, hamaika gau ilunen buruan zutaz horrenbeste dakien Katti; makina bat aldiz zure arazoak kontatu dizkiozun burkoa izan den Katti; nire sexua zurea ehundaka aldiz besarkatu eta gero, zutaz maitemindu dena ez da Katti izan, Irene baizik. Udako goiz argi batean abentura bila irten eta etxea utzi zuen Irene gazte, ametsez betetakoa. Etxera bueltatzea pentsatze hutsak izugarri ikaratzen zuela-eta, lehenengo egunetan horren onak ziruditen pertsona haiengana babes bila joan zen animalitxo galdua. Babesa aurkitu nuen, baina babes horren truke "erakustokian" jarri ninduten, bezeroek nire gorputz gaztea desira zezaten; horrela, "ordua" heltzean nire "alokairua" askoz garestiagoa izango zen.

Baina jadanik Irene ez da neska buruarin hura, bizitza den eskultore horrek, berak nahi zuen irudira moldatu nau-eta. Eskultoreak bere azken lanari jantzita edo bilutsik bizi nahi duen galdetzen ez dion bezala, niri ere bizitzak ez dit beste aukerarik ematen, emazteak "funtzionatzen" ez dion gizon bakoitzaren aurrean biluztu behar naizen bakoitzean. Eta etxean, bakarrik, nigarrez aurkitzen den emazteak ho

rren beharrezko dituen esku sendoek nire gorputza ferekatzen duten bitartean, moldatu nauen artisaua gorrotatzen dut, bere eskuetan preso dagoen artelana bezala sentitzen naizelako, beste aukerarik ikusten ez dudalako.

Baina lasai, badakit zure maitasuna lortzea ezinezkoa izanen zaidala, inor ez baita puta batez maitemintzen, nahiz eta puta hau izan une larrietan izan duzun lagun bakarra. Baina nik maite zaitut, eta horregatik idazten dizut gaur, ezinezkoa egiten zaidalako zurekin maitasuna egin eta gero, bi txanponen truk, gizon ezezagun baten hatsa nire belarrian sentitzea.

Amaitzeko, nire zerbitzuen bila gehiago ez etortzea eskatuko dizut soilik, jasanezina gertatuko bailitzaidake gaurkoa eta gero zurekin aurrez-aurre egon eta zure begiradarekin topo egitea. Hau da hau bizitza aldrebesa! Ezin zaitut begiratu, baina era berean ezin naiz zure begiradak isladatzen duen gozotasun hori jaso gabe bizi. Hala ere, zu gabe egotea oso zaila egingo zaidala dakidan arren, gaur, maitasuna egin eta gero loak hartzen zaituenean ohea utzi eta eskutitz hau lagako dut burkoan, azkenengo gau honegatik eman dizkidazun xoxekin batera; inoiz errepikatuko ez dudan musu ezti, luze bat ematen dizudan bitartean.

Badakizu agurrak ez ditudala gustoko, eta horregatik inoiz beteko ez den gero arte batez amaitu nahi dut nire eskutitza, aurrerantzeko zoriona opatuz.

Irene.

# Oihana Etxeberria
## *Akzesita*

***21 urteko aretxabaltarrak ustekabea hartu zuen Amodiozko Gutunen II. Berrigara Lehiaketan akzesitak lortu zuela enteratzean ezbaitzuen uste lehen aldiz horrelako lehiaketa batetara aurkeztu eta saririk jasoko zuenik. Enpresaritza Ikastketak egiten ari da***

## England

**H**ello my dear:

How are you? (Betiko galdera zentzugabea)
Ni..... nola ez, zurekin eta zuretzako amets egiten.

Zorionekoa zu ituri zintuen itsasoa
Zorionekoa zu ekarri zintuen olatua
Zorionekoa gu ezagutu ginen egunsentia
Zorionekoa gure lehen muxua

Une hartatik, zoriontsu izan ginen bizitzaren altzoan.
Zure berotasunak, zure maitasun hitzek, zure... irrifarra sortarazten zuten nire bihotzean.
Dena zen argi, dena zen garbi, dena polit...
Zein gozoa den maitasuna...
Zenbat mendi gailur elkarrekin zapalduak
Zenbat haserrealdi muxu batez arinduak
Zenbat ezin, gure nahiak gaindituak

Milaka oroitzapen datozkit burura, nigandik hain urruti aurkitzen zaren une honetan, zergatik !!
Egin al daitezke ikasketa batzuk bizitzaren helburu? edo ingelesa ote da bizitzaren muina? Ez dut uste. Basoak ere, ixilegiak izango lirateke, ongien egiten duten txoriek bakarrik abestuko balute. Gaizkien egiten duena izanda ere, nire zuganako maitasuna ez da inoiz itzaliko, ez da inoiz ixilduko, beti kantari izango da nunbait. Baina orain...

Zoritxarrekoa zu eraman zintuen txoritzar hura.
Zoritxarrekoa gizakiaren jakin nahia.
Zoritxarrekoa gu aldendu ginen ilunabarra.
Zoritxarrekoak ingelesa eta Ingalaterra, ingenieritza eta etorkizunaren beldurra.

Une hartatik, nire bizitzak, zoriontasuna ahantzi du.
Nire ondoan, ez dut zure berotasunik sentitzen.
Hotza da zuk utzitako hutsunea.
Geroztik iluna da nire bizitza, lanbroz esnaturiko eguna bezain iluna.
Ez al da egunsenti onik niretzako?
Jadanik ez dut aski zure telefono deia.
Ez dut aski nire logelako zure argazkien begirada.

Maitasunaren bidetik zoriontsu gindoazen unean, zergatik sufrimenduaz topo egin?
Egia da, bai, maitasunak, sufrimendua duela lagun; maite ez duenak ez du sufritzen eta sufritzen ez duenak, ez du maite. Hala bada ere... zergatik guri?
Baina ez da hautsiko horregatik, gure uztarria.
Itxarongo du gure maitasun egarriak.
Ez dut esperantzarik galduko. Barearen ostean


JULIO CALLEJA

Jon Sanchezentzat bigarren saria eta bergarar onenarena.

ekaitza etorri zen bezala,
etorriko da berriz ere
lasaitasuna, egunsentia...
irrifarrea itzuliko zaidan
garaia. Ilunabar orok du
egunsentia, aldapa
goranzkoaren ondoren,
beheranzkoa etorri ohi
da... Guk ere ez al dugu
holakorik merezi?

Baina bizitza gogorra da
eta sarritan esperantzak
irrist egiten du, "kalimero"
bilakatzen naizelarik.
Arantzaz betetzen zait nire
bizitza eta inoiz bizi nahi
ez dudan egun bat etorri
ohi zait burura.

Baina hala eta guztiz ere;
Iristen bada egun bat nire
maitasunik nahi ez duzuna
zure bihotzetik aterako
naiz baina maitatzen
jarraituko zaitut
Iristen bada egun bat
nirekin ibiltzerik nahi ez
duzuna,
ez naiz zurekin ibiliko,
baina lagun bezala
maitatuko zaitut
iristen bada egun bat
gehiago laguntzat nahi ez
nauzuna,
zure lagunen zerrendatik
ezabatuko naiz baina
maitatzen
jarraituko zaitut
Eta iristen bada gehiago
ikusi nahi ez nauzun eguna
zure begien bistatik
desagertuko naiz, baina
oraindik maitatzen
jarraituko zaitut

Nire bihotzak nonbait
bere taupada hotsez
bizitzen jarraitzen
badu, maitatzen jarraituko
zaitut, zu bait zara nire
egur zuriko
irudi landua
erreka garbietako
harri bitxia
zeru iluneko
eguzki izpia
lizardi zaharreko
ardaxka gaztea
nire bihotz xume honek
behar duen
maitasun iturria.

Besterik ez. Agian
norbaitek, pentsa dezake
istorio xinple bat
dela, baina zuk eta nik,
ondo baino hobeto dakigu,
gure benetako
bizitza dela urte luze
batetan bizi beharreko
tristura. Inork
baino hobeto dakigu, zer
den elkarrengandik urrun
egon beharra, zer den
sufrimendua, zer den
esperantza, zer den...
MAITASUNA.

Laister arte. Bihotz
bihotzez.

PD: Ez dakit esan dizudan
baina bihotz bihotzez
maite zaitut, ala esan
dizut? (ja!)


Oihana Etxeberria atxabaltarrak akzesita lortu du.

# Roberto Izagirre
## Akzesita

***Roberto Izagirre 32 urteko eibartarra da, baina gure herrian bizi da. Izagirrek lehen aldiz idatzi du lehiaketara eta berak adierazi digunez ez zuen espero irabaztea.***


Roberto Izagirrerentzat izan da akzesitetako bat.

## Bi maitasun amets

Ene Maite kuttuna!!
Gogoratzen al duzu?

Ilargia uretan murgilduta
itsas arrain txikien artera
uraren hozkirriaren zirrara
hondar epelaren alboan

Orain honetara, elur tarte madarikatu honetara, doinu eta bertso haien oihartzuna datorkit. Ez dakit guk biok bat eginda Ernioko magalean dantzatu genuen berbera den, edota nire bihotzaren taupadak, zeure oroitzapenarekin, musika bihurtu ote diren. Ez edozein musika ordea, baizik eta huraxe -bere epeltasun eta goxotasun haundiarekin- orain hain premiazko dudan horrekin. Abesti honekin, azkenean, nire zama arindu egin nuen, bapatean bota nizunean : "Maittia udazken honetan eta gure bizitzak betiko elkartu aurretik, Pumorira noa". Momentu hartan, nahiz eta konturatu zure gorputza hotzikara batek zeharkatzen zuela, zure ezpainek orain arte ikusi dudan irrifartxorik aingerutarrena eskaini zidaten, esanez : "Aurrera ba, joan eta bete zure ametsa".

Hain urruti etorri behar amets bakarra zeu zarela konturatzeko!! Egunen batean, gailur hau zapaldu ondoren, nahiz eta oroimen zoragarri ugari gelditu, amets hori desagertu egingo da nire barnetik. Baina zure irudimena, batzuetan alai, bestetan goibel, hori, hori ez zait behin ere desagertuko.

Haizeak zimurtu du itxasoa
kresalak lehortu malkoak
maitasunaren zain hemen
naukazu izar goiztiarrei
begira.

Doinu hau bururatzen zaidan bakoitzean, nire erraiek bero sarkorra nabari dute, larruarena baino epeltasun hobea; nire soina inguratzen duten lumek baino ongitasun ederragoa sortarazten dit zure irudimenak. Eta hemen naukazu, puxka hilkor hau soka batekin Peiori eta izotzari lotuta eta beste zatia, ikusten ez den zatia, zeuri lotuta. Hari korapilatu bi hauei esker lortuko dut nire ametsik liluragarriena betetzea, "zu" eta "ni" betiko "GEU" izatea!! Paraje honetan, sarritan, soka fijoak jartzea da zailena, behin jarriz gero, berriz, ziur

asko sentitzen zara. Gure artean berdin. Bai, badakit ez dela erraza izango, baina lortuko dugu eta horren sariak merezi izango ditu bideko muga guztiak gainditzen pasa beharko ditugun ezbeharrak. Hemen, goizaldeetan, izotza diamant bihurtu eta gora egitea zail egiten denean ere, piolet eta kranpoiei esker aurrera egiten dugun moduan, horrela, helduko gara biok, astiro astiro, bizitzaren gailurreraino.

Iluntzean uraren ertzean
errainu baten argia
ene maite biok jolasean
olatu zipristin artean

Gure kantuaren doinua bukatu ondoren, ilunaldia gaudimendu bihurtu denean, garbi somatu dut nondik datorren ferekatzen nauen haize hotz hau. Euskal Herritik jakina. Han, mendi magalen batean zure gorputz xarmangarria leunki laztandu, eta bere lurrina -hain ondo ezagutzen dudana eta orain, hain hurbil eta batera hain urruti usaintzen dudana- xurgatu ondoren, hemen zabaldu du, mezu honekin batera: "Zatoz, zatoz, amets eder hori bete ondoren; esnatzean, zeure ondoan jarraitzen dudala ikusitakoan, ametsik ederrena eta goxoena bizi izango dugu, ez amaitzeko inoizzzz....... !!!

Eskerrik Asko !! Haizete honekin bidaltzen dizut nire ezpain urratuek eman dezaketen laztanik goxoena; iritsiko zaizulakoan

Paa........

Betirarte!!!!"



JULIO CALLEJA

15 urte ditu aurtengo amodiozko gutunen lehiaketako sari nagusia eskuratu duen Ekhiñe Egiguren donostiarrak. Jon Sanchezek iaz ere lortu zuen bergarar onenaren saria eta aurten hori ezezik bigarren saria ere eraman du. Jose Angel Mikeo JARDUNeko Lehendakariak sariak banatu zituen.

ARRASATEARRA
Gure berezitasuna bazkariak.
Eguneko menua daukagu.
Taberna
Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA


KORTA-ZAR
Txokolategia
Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea
OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK
Barrenkale 16, ☎ 76 20 62



Ron gehiegi edan omen zuten Bideberrin desenbarkatu zuten piratek.



Txotisa Madrilen dantzatzen dela? hara hemen bikot
kastizo majoa.



*Budamania* heldu zaigu Bergarara ere. Budista hauek ez dira ba hain txikiak. Garizuma hastear dago eta bihar denok konfesatzera.



Vikie Bikingoaren ondorengoak.



Pizinetara joan eta hauek itxita. Zer egingo diogu ba..., trajebaño eta guzti kalera!



Play Boy-ko konejotxoek giroa bero-bero jarri zuten.

# KOMIKI LARIAK



## ... GERO ARTE

# KOMIKI LARIAK

Aldameneko orrian dituzuen bi horiek dira azken hiru urteetan BERRIGARA marrazkiz jantzi dutenak. Josu Okina eta Antonio Arrillagari, 135 astetan errebistan egin duten lanagatik, omenalditxo bat egin nahi izan diegu. Ondoko orrialdeetan beren inpresioak eta urte hauetan astekarian argitaratu diren marrazki polit edota esanguratsuenekin egindako bildumatxo bat eskaintzen dizuegu. Josu eta Antonio edota nahiago baduzue Antonio eta Josu. BERRIGARAk argia ikusi zuenetik, eta ordutik dagoeneko hiru urte pasatxo badira, astekariko ilustrazioak egiteaz arduratu dira. Ez da lan makala izan. Josuk "Tiira ba" izeneko atalean komiki tira bana egin du 135 aletan. Astero-astero marrazkien bidez historiatxo bat kontatzen aritu da. Antoniok, berriz, zerbait egiteagatik (sariren bat irabazi, lanen bat argitaratu, karguren batetarako izendatu edota urtemugaren bat ospatzeagatik) aste horretan notizia izan diren pertsonaia, talde edota elkarteen marrazkitxoak egin ditu "Zertan dihardute" izeneko sailean.

## 13 galdera motz

**Nola marraztuko zenukete abade bat, politiko bat eta mutiko bihurri bat?**
JOSU OKINA: Errezaua da eittia esatia baino, ze, buruan gauza bat euki eta eta amaitu orduko zeharo aldatuta, dana dala intento bat joko dot: abadia duda barik potolua, politikua narru sendua, eta mutikua buru haundixa eta irriparre maltzurrekua.
ANTONIO ARRILLAGA: Lapitzaz, boligrafoz, plumilaz edo tizarekin baina beti kuidado haundiz.

**Josu Okinari, zergatik dira zure marrazkietako abade guztiak potoloak?**
Ein izan dittut mehe eta luziak (Pernando plaentxiarra) baina normalian nahiko triperuak ei die.



**Antonio Arrillagari, zergatik dira zure marrazkietako pertsonaje guztiak sudur haundiak?**
Errezagoa dalako.

**Zenbat denbora behar duzue pertsona baten karikatura bat egiteko?**
J. O: Ezaguna bada gutxi (5 minutu edo).
A. A: Auskalo.

**Komikilari-marrazkilari gustokoena?**
J. O: Antxinakuetan Harol Foster, eta oinguetan Moebius.
A. A: Lehen, La Codornizen, Pabloren marrazkiak gustatzen jatan.

**Eta periodikoetako biñeten artean zein gustokoen?**
J. O: Gallego & Rey.
A. A: DEIAn agertzen den Olafo oso logratua dago.

**Rompetechos ala Capitan Trueno?**
J. O: Capitan Trueno.
A. A: Gaztetan Capitán Trueno.

**Dragoi bola ikusten duzue?**
J. O: Ez.
A. A: Bai, baina hasieran askoz ere politagoak ziren.

**Marrazkia ala pintura?**
J. O: Bixak.
A. A: Pintura eta marrazkia.

**Marrazki bizidun japoniarrak gustoko dituzue?**
J. O: Ez.
A. A: Ez hainbeste.

**Gustokoen duzuen Supereroia?**
J. O: Danak be Super Lelo xamarrak dittuk.
A. A: Superlopez bakarrik (baina Arriortua ez eh!)

**Zergatik desagertu da Superman?**
J. O: Kriptonita enpatxo bategaittik.
A. A: Konpetentziagatik.

**Non gustatzen zaizue Superman gehiago komikian ala zinean?**
J. O: Platerian.
A. A: Zinean, baina andreak lo hartzen du.



## ANTON ARRILLAGA



Elgoibartarra jaiotzez, orain dela 22 urte inguru etorri zen Bergarara lanera eta handik gutxira ezkondu egin zen. Harrezkero Bergaran bizi da eta, 2 seme-alaba ditu. "Bergarara etorri nintzenean ekin nion marrazkiak egiteari, lanetik irten eta aspertu egiten nintzen eta ordu luzeak ahalik eta aguroen pasatzeko hasi nintzen dibujatzen".
1983an pintatzeari ekin zion eta gaur egun ere horretan dihardu. Ortonovora joan zen bergarar margolari taldeko pintoreetako bat dugu. BERRIGARAn, **"Zertan dihardute"** ataleko marrazkiak egiten jardun du eta garai batean portadakoak ere marrazten zituen.

# HIRU URTE GURE ARTEAN BERRIGARAko MARRAZKIAK EGITEN

Gazte-gaztetatik ekin zion marrazkiak egiteari. Artista familian jaiotakoa, aita eta aita-jauna marrazkilari eta tailaginak zituen. Migel Okina pintorearen loiba, Simon Arrieta, Julio Azkargorta eta tio Migelekin ikasi zuen gaztetan.
*"Fernando Plaentziarra"* (1994) eta *"Ega Hegan"* (1986) liburuetarako marrazkiak egin ditu. Horrez gain, zenbait erakusketa kolektibotan parte hartu du "Bergarako margolariak Ortonovon" erakusketan, esate baterako. Pintatzen orain dela lau bat urte hasi zen bere osaba Migelekin.
BERRIGARAren lehenenego aletik gaur arte astero-astero **"Tiira ba"** izenburuko komikia egiten jardun du eta horrez gain beste hainbat marrazki ere egin izan ditu astekarirako.



## JOSU OKINA

# KOMIKI LARIAK




**JOSU OKINA**




**ANTONIO ARRILLAGA**




**JOSU OKINA**

# KOMIKI LARIAK




ANTONIO ARRILLAGA




JOSU OKINA



ANTONIO ARRILLAGA

# KOMIKI LARIAK




ANTONIO ARRILLAGA




JOSU OKINA




ANTONIO ARRILAGA

# KOMIKI LARIAK




**JOSU OKINA**




**ANTONIO ARRILLAGA**




**JOSU OKINA**

# KOMIKI LARIAK




JOSU OKINA





ANTONIO ARRILLAGA




JOSU OKINA

# KOMIKI LARIAK



ANTONIO ARRILLAGA




JOSU OKINA



ANTONIO ARRILLAGA



## Gipuzkoa: bihotz-bihotzean








Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**n.
Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde.
Gure jende guztiaren alde.
Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

**Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

**kutxa fundazioa**

kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa

caja gipuzkoa
san sebastián



**Bittor Rodriguez**

20 urte, Gasteizen "Dietetika eta elikadura" ikasketak egiten ari da. II. Komiki Lehiaketan lehen saria jaso du aurten helduen taldean eta iaz 2. saria eraman zuen. Mortadelo y Filemon gustatu izan zaio txikitatik, marrazki bizidunak ikusten ditu normalean eta kaleko kartelak edota periodikoetan agertzen diren biñetak ikustea gustatzen zaio. Bere marrazkilari faboritoa, JAN, Super Lopezen egilea.

**Gorka Ortega (argazkian) eta Jon Alvarez**

13 urte dituzte eta Aranzadi Ikastolan OHOko 8 mailan ari dira. JARDUNek antolatutako II. Komiki Lehiaketan lehen saria jaso dute, 6. mailatik 8. mailarakoen artean. Iaz Gorkak akzesita lortu zuen Iñaki Arizaletarekin. Betidanik gustatu izan zaie marrazkiak egitea eta eskolan, ordu terteak, papera hartu eta dibujoak egiten pasatzen dituzte. Horrez gain eskolan bere lagunekin egiten dituen lanen azaleko ilustrazioak egiten dituzte. "Dragoi bola" marrazki bizidun japoniarraren egilearen estiloa dute gustoko.





**Jose Martin Ezenarro**

(29 urte), Ezenarro anaietan gazteena dugu. Julianek, bere anaiak, erakutsi zion marrazkiak egiten. Marrazkiak egiteaz gain irakurtzea ere oso gustuko du, "historia eta filosofia gaiak batez ere". Beasaingo Gaztetxeak antolatutako komiki lehiaketan lehen saria jaso zuen orain dela pare bat urte eta bere lanak DV egunkariaren Devórame gehigarrian hainbat alditan argitaratu izan ditu. Bere anaiari bezala, Jose Martini ere gai historikoak jorratzen dituzten komikiak gustatzen zaizkio.

**Julian Ezenarro**

37 urte ditu eta umetatik ekin zion marrazkiak egin eta margotzeari. Dibujatze berez ikasi zuen, inguruan topatzen zituen komikiak eta marrazkiak ikusiaz, hala ere, urrutitikako marrazki ikastaro bat egin zuen txikitan. Bere anaia Jose Martinekin batera, dibujo eta margo ikastaroa ematen die Osintxuko eskolan, auzoko 12-14 urte bitarteko haurrei. "Euskadi en llamas", "El Cid" edota "Orreaga" tituluko komikiak egin dituen Palacios madrildarraren estiloa du gustuko. Bere anaiarekin batera Zumalakarregiren historia ere egina du komikian.



# AURRERANTZEAN GOIKO HAUEK EGINGO DITUZTE BERRIGARAko KOMIKIAK



Hainbeste dira... Txinatar jatetxea Bergaran jarri behar zutela eta, dagoeneko etorri dira gurera.



Nahikoa ez genuela eta, Pazkuetan ezezik karnabaletan ere zezenak Bergaran. *Faena* bikaina "piparradakoena".



Juan Valdesek badu lana kafe ale guzti hauek zaintzen.



Norbaiten etorkizuna asmatuko zuen Rappelek?



Brasileko karnabalak makalak omen dira eta....



Zer esan zuen zezenak hil aurretik?...

Berrigazte
ikasleen orriak
San Martin Ikastetxea
3. Zenbaki

# sarrera gisa

**San Martin Agirre herri ikastetxea 1980. urtean sortu zen Bergarako hainbat lekutatik sakabanaturik zeuden irakasle eta ikasle txikiak bilduz.**
**OHOko eskola bat izateaz gain, duela 3 urte San Migel Patronatua eta ASPACE erakundeek gurekin bat egin zutela esan beharrean gaude euren irakasle eta ikasleak gure ikastetxean integratuta geratu zirelarik.**
**BERRIGARA aldizkarian agertzen garen lehenengo aldia dela kontutan hartuz, gure ikasleengana jo dugu eta euren eskolari buruz duten iritzia eskatu diegu. Hauexek dira jasotako hainbat lan.**




## Gure ikastetxea

Gure ikastetxeak San Martin Agirre izena du, Deba ibaiaren ondoan dago. Patioa oso haundia da, zuhaitz asko daude, baina putzu asko egiten dira euria egiten duenenan, belarrean zulo asko daude eta han ezin dugu jolastu. Guk, txikiok, futbol zelai bat, bankoak, kolunpioak eta txirristak nahi ditugu atsedenean jolasteko.

Gure gela 1.go solairuan dago, polita eta haundia da, landare eta jolas asko ditugu, oso pozik etortzen gara eskolara. Hemen gauza asko ikasten ditugu: euskara, gauza berriak, abestiak... eta lagunak egiten ditugu.

2. Mailako Ikasleak

## Gure eskol

Gure eskola oso polita da. Pati
oso haundia da. Futbolean aritz
tokia dago, laugarren maila
batez ere oso onak dira futbol
finalera ailegatu bait d
Saskibaloian eta boleibo
aritzeko tokia dago. Pati
dauden zuhaitzak eta landar
zaintzen ditu
Gure atezaina Sebas Igartua
oso ona da jendeare
Neska-mutilek mina hartzen ba
sendatzen ditu. Baloiak bana
ditu ere. Batzuetan gozo
ematen dizkigu. Puskatzen di
gauzak berak konpontzen di
Patioa zikintzen denean be
garbitzen
Andereñoak oso guai dira ba
umeak gehiago. Bideo g
lanborategia eta tailerrak ditu
oso delikatuak dira baina o
zaintzen baditugu ez da e
gertatz

4. Mailako Ikasle

## ...skolan gustora



...an Martin Agirre gure ikastetxea pertsona atzeratuak onartzen dituen eskola bakarra da. ASPACEko elbarriek, adibidez, ...rekin batera egiten dute lan eta ahal dugun neurrian lagundu egiten diegu beraien etxeetan bezala egoteko.

...orrezaz gain esan beharra dugu hizkuntz laborategi bat ipini digutela orain denbora gutxi. Ingelesa eta beste hizkuntzak ...hantxe ikasten ditugu errezago. ...orategi bat ere badugu. Natura ...saioetan, batez ere, hara joaten gara mota guztietako ...erimentuak egitera. Plastikozko eskeletoak ditugu hezurrak ikasteko eta Natura bilduma mordoa: mineralak, haitzak, itsasoko txirlak, animalia disekatuak, sugeak, kirikinoak, zatorrak...

...inera, ordenagailu gela bat ere badugu. Hemen hamaika bat ...ordenagailu ditugu informatika ...loan gogor aritzeko. Guri asko gustatzen zaigu hara joatea. ...ulanak egiteko tailer bat dugu. ...rduak konturatu gabe pasatzen zaizkigu erloju eta lanparak egiten.

Telebista, bideoa edota ...positibak ikusi nahi ditugunean ...Bideo Gelara abiatzen gara eta ...tzen dizkiguten gauzak hobeto ulertzen ditugu. Dena dela, dudarik gabe, gehien gustatzen zaiguna Gorputz heziketa ematea da. Hortarako Aranzadi Ikastolaren ondoan Gimnasia leku bat daukagu barruan aparailu mordoa daudelarik.

Ikuskizun aretoa ere badugu, non, Gabonak ailegatu aurretik, jaialdi zoragarri bat antolatzen dugun.

Ikus dezakezunez, oso pozik gaude gure ikastetxearekin

7. MAILAKO BI IKASLE

# elkarrizketa

## *Ikastetxearen egoerari buruz*

## "Jolastokiak txarto daude"

**Gure ikastetxea ondo dago baina jolastokia ez dago hain ondo. Futbol, saskibaloi eta belar zelaiak eskola baino txartoago daude. Futbol zelaian, adibidez, zulo txikiak daude, saskibaloi zelaian, zuloz gain, harriak, eta belar zelaian zegoen belarra lokatsez estali dute. Horregatik gure eskolako bi ikaslerengana jo dugu eta honako galdera hauek egin dizkiegu:**

**- Aizu, Fernando. Zer iruditzen zaizkizu jolasteko dauzkagun lekuak?**

- Oso txarto daudela eta konpontzeko lanak egin behar dituztela.

**- Zergatik uste duzu egoera horretan daudela?**

- Euria egiten duenean putzuak sortzen direlako.

**- Zer iruditzen zaizu belar zelaia?**

- Konpondu behar dela lokatza asko dagoelako.

Fernandok erantzun ondoren, gure lagun Aitorri galdera berdinak egin dizkiogu:

**- Aizu, Aitor. Zer gertatzen da futbol eta saskibaloi zelaiekin?**

- Futbol zelaia ondo dago, baina balontzestokoa gaizki, harri asko dagoelako.

**- Eta belar zelaia?**

- Oso gaizki dago.

Azkenik, gure atezainarengana joan gara berak honetaz zerbait jakingo zuela pentsatuz eta honako galdera hau egin diogu:

**- Zergatik kendu dute belar zelaia?**

- Egia esan, ez dakit baina uste dut futbol zelai bat egiteko asmoa dutela.

6. MAILA

# txiste amerikarra



Bidaiari bat Ameriketara joan zen oporrak pasatzera. Han telebista bat erosi zuen eta esaten dio dendariak.

- Aizu! zure herrian ez dago telebistarik ala?
- Bai! baina Amerikako programak askoz gehiago gustatzen zaizkit!

JOSE LUIS SALAS ETA GORKA LOBATO.
6. MAILA.

# Amodiozko gutunak bidaltzeko ohiturari badaukazu?



**Amaia Labaien**

*26 urte, langilea*

Ez, ez daukat ohiturarik kartak eta horrelakoak bidaltzeko. Kanpoan nagoenean ere ez. Jaso? Ezta.



**Asier Lazkano**

*21 urte, ikaslea*

Ez, ez zait idaztea gustatzen. Nahiago dut telefonotik berba egitea karta bat bidali baino.



**Asun Askasibar**

*56 urte, etxekoandra*

Ez, orain ez baina gaztetan b... Lehen asko bidaltzen genitu... baina gaur egun ez dut ust... bidaltzen direnik.



**Alejo Garcia**

*34 urte, langilea*

Ez, 12 urte daramatzat ezkonduta... Lehen ere ez, nahiago dut aurrez aurre esatea esan behar dena.



**Amaia Sasiain**

*17 urte, ikaslea*

Idatzi behin edo... eta jaso beste behin. Baina normalean ez dut amodiozko gutunik idazten.



**Patxi Larrañaga**

*38 urte, langilea*

Aspaldi honetan ez. Gazteta... asko. Soldaduzka denboran b... ere... Lehen harremanak holakoak ziren baina orain ... daukat horren beharrik.

Amets
Ford
• HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
• Zango erremolkeak.
• Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.
Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

PETRIKILO
MASAJISTA
KARTA-AZTIA
☎ 76 47 24 (Gonzalo)

HAGIN KLINIKA
BERGARA
LEHEN AZTERKETA DOAN
Bidekurutzeta, 6 2. (Lehengo Notarian)
☎ 76 05 77

20 urte zure zerbitzura, kalitatezko altzariak eskaintzen
ederTu
Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65



## Deskubrimendua

Orain dela bi urte, 1992an, esan ziguten 500 urte zirela europarrok Amerika deskubridu genuenetik. Eta gainera mende bat igaro orduko konkistatu eta kolonizatua omen geneukan.

Horren adibide bat Mexiko izan zitekeen. Sasoi bateko azteka boteretsuen ordez orain azentu xelebredun, mariatxi kapela haundi, tekilazalez betea zegoela Mexiko, uste genuen.

Bapatean urteberri egunez gure eskemak apurtzera zetozen berriak hasi zitzaizkigun iristen. Ordura arte telebistan agertzen ez zen Mexiko bat deskubritzen hasi ginen. Ez zegoen kapela handirik eta ez zuen ematen kanturako gogo handirik zutenik. Eta gogorrena ez zekitela gazteleraz edo juxtuan moldatzen zirela. Beraz, badira oraindik ere zeharo kolonizatu gabeko herriak Mexiko alde horretan.

Lurra eta askatasuna behar zutela eta hartu zituzten armak. Baita mexikar gobernu demokratikoaren erantzuna jaso ere: tankeak eta abioiak. Hala ere zapatistek lortu omen dituzte euren helburuak, orain mundu guztiak baitu beraien berri eta gobernua hasia da negoziatzen.

Sasoi batean lurralde berriak deskubritu eta konkistatzeko ezpata eta gurutzea erabiltzen baziren, gaur egun kamarak dira armarik onenak. Izan ere kamara aurrean azaltzen ez denak ez baitu existitzen.

**Imanol LARREA**



## Otsailak 19

Egun esanguratsu baten bezperan gaude eta ez nuen galdu nahi komentario arin bat edo beste egiteko aukera. Aipagarria, ELA eta LAB bateratsu joatea, ez baitira orain arte lagun minak izan. Hemendik aurrera ere izango dituzte beren tirabirak. Bistan da, ordea, euskal sindikalgintzan eman den heldutasun seinalerik nabarmenetarikoa dela. Sindikalgintza zeregin pragmatikoa da eta egiazko lokarriak sortzen ditu langile munduan, eta askotan, uste eztako harremanak beren organizazioen artean. Bestalde, euskal sindikatoak elkarrekin eta CC.OO eta UGT deialditik kanpo gelditzeak ere, badu bere esanahia. Aipatu ditudan lokarriak oso objetiboak dira, eta euskal kontestuaren errealitate bizia azpimarratzen dute lan arloan: badugu zer defendatu Euskadiko langile bezala, alegia, Euskadik bere buruari legeak emateko gaitasun eta negoziaketa kolektiboa bertan antolatzeko eskubidea. Hitz batean, lan harremanen Euskal Esparrua.

Emandakoa, gesto folkloriko askoren gainetik, pauso luze bat da bakearen bidean. Bi sindikatuok lan sakona burutu dute ekintza aurrera eramateko. LABen jarrerak, konkretuki, lan harremanen esparrua defendatuz, Euskal Instituzioen errekonozimendua dakar berarekin, orain arte etsai amorratuak zirenen artean. Ez da baina orderik jaso Instituzio hauen partetik euskal sIndikalismoaren eta langilegoaren nortasunaren alde. Ohar gaitezen demokrata eta bakezale ez dela inor berez ejerzitzen duen neurrian baizik.

**Xabier LARRAÑAGA**

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro,9-Teléfono, 761051
R.S.I. 209374 -SS
BERGARA

JOSE LUIS eta MIKEL
URTEAGA, 6
• Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa.
• Etxebarruen dekorazioa
☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17

ITXASMENDI
Taberna
Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA

FS Foto Sistema Albéniz
ARGAZKIAK ORDUBETEAN
✓ Diapositiba errebelatzeak.
✓ Karneterako argazkiak momentuan.
✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.
Kruz Gallstegi, 2 ☎ 76 00 50



## Liderrak

**Bergara K.E.**ko infantil futb taldeak martxa ezinhobea darama. Orain arteko partidu guztiak irabazi eta dagoenek 12 puntuko aldea atera dio 2. postuan dagoen Aloña Mendi Argazkian Oñatin bergararrek 2 eta 8 irabazi zuteneko argazkia. Ezkerretik eskumar Azkondo, Zaitegi presidentea, Iban, Rollan, Luque, Larrañag eta Aranburu entrenatzailea (zutik); jarrita Elorza, Arevalo, Garai, Eraña eta Txara. Aupa mutilak!!

## Lasatarrak sarituta

**Lasa familiak** Euskal Gastronomia Akademiako Sari Berezia jaso zuen otsailaren 5ean Laudioko Zubiko Etxean. Eusko Jaurlaritzak urtero banatzen dituen sarietako baten bitartez, aurten Lasatarrak urtetan egindako lana aitortu nahi izan du. Saria jasotzeko familiako 27 kide bildu ziren Laudion. Gogoratu behar da, Bergarakoaz gain, beste 10 jatetxe dituztela Lasatarrek. Zorionak guztiei egindako lan bikainagatik!!




Argazkian, Bidekurutzetan dagoen Lasa jatetxea.

IZADI
Santiveri
PILI GISASOLA
Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua
Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

iRUDi
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGAR

## Urrezko eztaiak

**Julian Gorrotxategi** eta **Juliana Zangituk** beren ezkontzaren urrezko eztaiak bete zituzten joan den urtarrilaren 28an (1944an ezkondu ziren Osintxun). Hori ospatzeko, urtarrilaren 29an bazkaria izan zuten familiartekoekin batera Lasa jatetxean. Han izan ziren, besteak beste, beren bi semeak eta hauek eman dizkieten 3 ilobak (argazkian Julian eta Julianarekin). Zorionak biei eta eutsi osasunari!!



## Zertan *dihardute* ba?



**Jose Luis Elkoro**
HBko Mahai Nazionaleko kidea, Senataria eta Bergarako Udaleko zinegotzia, notizia izan da aste honetan bi arrazoirengatik. Alde batetik, Senatuko Mahaiak HBko senatari bakarrari soldata kentzeko tramiteak hasi dituelako. Elkoro Senatura maiztasunez agertzen ez dela, eta horregatik soldatarik kobratzeko eskubiderik ez duela argudiatzen du Senatuko Mahaiak. Bestetik, HBko ordezkariek, tartean Jose Luisek berak, ostegunean prentsaurrean adierazi zuten moduan Elkorok Ertamerikan dagoen Eugenio Etxebeste ETA kidea eta Madrileko Gobernuaren arteko kontaktuak errazteko saiakeran parte zuzena hartu du.

## Iturria kanposantuan

**Osintxuko Kanposantuak** iturria estreinatu berri du. Bere sorrerartik ez zuen kanposantuak iturririk eta orain auzoko lagunen lanari esker posible izan da. Udalak, Bergara Marmoleria eta Mekolalde Torreko Timutik materiala eman eta auzoko hainbat gizonek iturria muntatzeari ekin zioten. Auzolanean egindako lana abenduan amaitu zen.



Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

SUBIJAI
Gazteentzako moda
Irizar, 1 ☎ 76 42 41

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak
Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

# Zelestina Larrañaga

## Baserriko esne partitzailea

**Lamariano-Etxeberri baserriko Zelestina Larrañagak (65 urte) 50 urte daramatza esnea partitzen. Egunean 65-70 litro esne banatzen ditu herrian, "gasolina baino prezio merkeagoan".**

**- Zure ofizioa desagertuko al da inoiz?**
- Nahiko duda daukat.
**- Ze ordutan jaikitzen zara?**
- 6 t´erdietan.
**- Kafea hutsik ala esnearekin?**
- Esneaz, urarekin egosten dut.
**- Eta kafesnea laguntzeko?**
- Sopak.
**- Esnea marmitan ala tetra-briken?**
- Marmitan.
**- Yoghourt desnataturik hartzen al duzu?**
- Ez, ez zait gustatzen.
**- Lanerako kotxea ala astoa?**
- Gaztetan astoa, orain kotxea.
**- Karnabalak ospatu dituzu?**
- Bai, torradak egin nituen etxekoendako. Neri flakatzea komeni...
**- Pazkuak ala San Martinak?**
- San Martinak, motzagoak dira.
**- Afalostean karta jokuak ala telebista?**
- Telebista pixkat.
**- Euskitze ala Egaña?**
- Egaña.
**- Erramu Zapatuko feria ala San Martinekoa?**
- Erramu Zapatua.
**- Belarritakoa txahalak ala gizonezkoak?**
- Txahalak, prima kobratzeko.
**- Hobby bat.**
- Galtzak egitea gustatzen zait.
**- Herriko txokorik politena.**
- San Martzial.
**- Urteko sasoirik ederrena.**
- Maiatza.
**- Kantante bat.**
- Maria Ostiz.
**- Nor gonbidatuko zenuke afaltzera.**
- Biziko balitz, Lazkao Txiki.
**- Eta zer afalduko zenukete?**
- Legatz presko pixkat.
**- Porru patatak ala berakatz salda?**
- Porru salda.
**- Baserrian bizitzearen gauzarik onena eta txarrena.**
- Txarrena zahartzen goazela eta onena 30 urterekin lanerako genuen sasoia.



***"Maria Ostiz kantantea gustatzen zait, Bergarako txokorik politena San Martzial da eta urteko sasoirik ederrena maiatza. Lazkao Txiki gonbidatuko nuke afaltzera"***

ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

Kiroldegiko
Taberna
Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41



POL-POL
TABERNA
☎ 76 07 7

DEPORTIVO
TABERNA
☎ 76 01 51

# BONOFOTOA



M. A. ELKOROBEREZIBAR



## Felipa Larreategi

**FELIPA LARREATEGI**k irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria. Aurreko BONOFOTOko galdera berak asmatu du, garai batean Bergaratik trena pasatzen zenean goiko eta beheko trenbideek Mekolaldeko estaziñuan egiten zuten bat. Erantzun asko jaso ditugu eta **Felipa**ri tokatu zaio oraingoan. Berak eskuratu ditu sariko **10.000** pezetak. ZORIONAK **Felipa,** eta besteok segi jokatzen saria lortu arte. Suerte!!

*Zein da baserri honen izena?*

______________________________

**Izena:** ________ **Abizena:** ________ **Tfnoa:** ________

***Saria:***
***10.000 Pzta.***

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

***BERRIGARA***
***Errotalde Jauregia Bergara***

# MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

**Koldo Eleizalde, 8 BERGARA ☎ 76 00 00**






# 94ko ezkongaiak

**BIKOTE SARITUARENTZAT ERREGALIAK**

**94KO EZKONGAIEN LEIHAKETA**

| ERREGALIAK | ETXEAK |
|---|---|
| ANDREGAIAREN JANTZIA | **BAYON** (Donostia) |
| SENARGAIAREN JANTZIA | **TAYLOR** (Vitoria/Gasteiz) |
| ZILARREZKO EZKON DIRU | **KAREAGA** (Eibar) |
| EZTAI EGUNERAKO CAVA | **CODORNIU** |
| EROSKETA TXARTELA | **ARKAUZ HALTZARIAK** (Aretxabaleta) |
| SUKALDERAKO MAHIA ETA AULKIAK | **IKER** (Mondragón) |
| BAXERA ETA KRISTALERIA | **TUIN'S** (Donostia) |
| ETXEKO POLIZA ETA BIZI ASEGUROA | **OCASO ASEGURU ETA BERRASEGURUAK** (Eibar eta Beasain) |
| CANARIASERA BIDAIA | **EROSKI BIDAIAK** (Donostia) |

**ZOZKETA: OTSAILAREN 25an**

1995ko Martxoaren 31 baino lehen ezkontzeko asmotan bazara, bete orri hau eta bidal ezazu Otsailaren 25a baino lehen LOIOLAKO HERRI IRRATIA • 94KO EZKONGAIAK • 20730 AZPEITIA (GIPUZKOA) helbidera.

SENARGAIA ____________________ (izen deiturak)
____________________ (helbidea)
____________ (herria) ____________ (telefonoa)

ANDREGAIA ____________________ (izen deiturak)
____________________ (helbidea)
____________ (herria) ____________ (telefonoa)

Ezkontza eguna (gutxi gora behera) ____________________

RADIO POPULAR
LOIOLA
HERRI IRRATIA

## KIROL EMAITZAK

**FUTBOLA**
• Prefente maila:
Zumaiako 1-Bergara 0
• Lehen erregionala:
Bergara 1-Amaikak Bat 0
• Lehen mailako jubenila:
Sto Tomas 0-Bergara 4
• Lehen mailako kadetea:
Bergara 4-Elgoibar 2
• 2. mailako kadetea:
Ilintxa 6-Bergara 0

**ESKUBALOIA**
• Senior mutilak:
Aloña Mendi 19-Bergara 17
• Jubenil neskak:
Zarautz 12-Bergara 13
• Kadete mutilak:
Bergara 20-Mundaiz 23
• Kadete neskak
Bergara 1-Bidebieta 0
(ez zen aurkeztu)

**SASKIBALOIA**
• Jubenil mutilak:
Bergara 61-Sto Tomas Lizeoa 57
• Infantil mutilak:
Aloña Mendi 33-Aranzadi Ikastola. 50
• Kadete neskak:
Almen 35-Bergara 50

**PELOTA**
(Euskal Liga)
• Jubenilak binaka:
Bergara 17-Oberena 22
• Jubenilak banaka:
Bergara 14-Ortuella 18



Orain dela zazpi urte jokatu zuten azken aldiz elkarren kontra.

# Reyes-Joseba: desafioa prest

## *Gaur, ostirala, gaueko 10etatik aurrera, sekulako pelota jaialdia Udal Pelotalekuan*

**Reyes Azkoitia eta Joseba Askasibar, "Balandras"ek gaur gauean elkarren aurkako pelota partidua jokatuko dute Bergarako Frontoian, Amnistiaren Aldeko Batzordeak Jose Mari Etxaniz eta Iñaki Ibabek espetxean bete duten 14. urteurrenaren inguruan antolatutako ekitaldien barne. Orain 7 urte izan ziren azken aldiz aurrez aurre Reyes eta Joseba eta orduan Josebak 18 eta 8ko emaitzarekin irabazi zuen. Binaka jokatu duten partiduetan, Reyes (42 urte) 4 partidutan nagusitu da eta Joseba (56 urte) berriz baten bakarrik izan da irabazlea. Gaurkorako biek ere ez dutela entrenamendu berezirik egin adierazi digute baina ziur gaude partidua jokatu arte ezkutuan gorde nahi izango dutela beren benetazko indarra eta ametsetan landutako jokaldiak. Biak ere jaialdiaren arrakastarekin konformatzen dira printzipioz Gaueko 10etan hasiko den jaialdia Aitor Muruamendiaraz-Igor Gutierrez/Eduardo Samaniego-Asier Iturbe, eta Iker Muruamendiaraz-Aitor Oregi/Jokin Etxaniz-Igor Oruesagasti partiduek osatuko dute.**

GURIDI Altzariak
Era guztietako altzariak
Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02


ZABALETA ERROTULOAK
Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparateak...
Amilaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

# LABEGARAIETAKO *futbito* txapelketa

## 1. maila

| TALDEA | Punt. | J | I | B | G | Golak alde | Golak aurka |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1.** Errotagain | **22** | 11 | 11 | 0 | 0 | 66 | 11 |
| **2.** Madura | **20** | 10 | 10 | 0 | 0 | 39 | 11 |
| **3.** Bildurbarek LAM | **16** | 11 | 9 | 0 | 3 | 50 | 46 |
| **4.** Toki Eder | **15** | 11 | 7 | 1 | 3 | 66 | 27 |
| **5.** Angiozar | **14** | 11 | 6 | 2 | 3 | 54 | 31 |
| **6.** Mongatxurra | **13** | 11 | 6 | 1 | 4 | 47 | 28 |
| **7.** Bar Canalejas | **11** | 11 | 4 | 3 | 4 | 33 | 36 |
| **8.** Ezinleike | **11** | 11 | 4 | 3 | 4 | 35 | 42 |
| **9.** Arloteak | **11** | 11 | 4 | 3 | 4 | 29 | 40 |
| **10.** Os Jardineiros | **10** | 11 | 4 | 2 | 5 | 46 | 54 |
| **11.** Usoa | **10** | 11 | 4 | 2 | 5 | 33 | 35 |
| **12.** Soropotroak | **8** | 11 | 4 | 0 | 7 | 36 | 40 |
| **13.** Nahikari Hooll. | **8** | 11 | 3 | 2 | 6 | 27 | 37 |
| **14.** Guadalest | **8** | 11 | 3 | 2 | 6 | 25 | 44 |
| **15.** Shaktale | **7** | 11 | 3 | 1 | 7 | 25 | 54 |
| **16.** Ogizun Okind. | **7** | 10 | 2 | 3 | 5 | 24 | 35 |
| **17.** Kriston Potruak | **7** | 11 | 3 | 2 | 6 | 27 | 37 |
| **18.** OH Zerezos | **6** | 10 | 3 | 1 | 6 | 32 | 41 |
| **19.** Kriterium | **6** | 11 | 2 | 2 | 7 | 29 | 44 |
| **20.** Akort Ariznoa | **4** | 10 | 1 | 2 | 7 | 21 | 53 |

### emaitzak

Joan zen astebukaeran ez zen lehen mailako partidurik jokatu.

### hurrengo partiduak

• LARUNBATA •

**10.00:** Os Jardineiros-Tokieder

• IGANDEA •

**09.00:** OH Zerezos- Akort Ariznoa
**10.00:** Bar Canalejas-Nahikari Hooligans
**11.00:** Shaktale-Bildurbarek LAM
**12.00:** Kriterium-Angiozar
**13.00:** Ezinleike-Madura
**16.00:** Usoa-Ogizun Okindegia
**17.00:** Guadalest-Errotagain
**18.00:** Soropotroak-Mongatxurra
**19.00:** Arloteak-Kriston Potruak

### golegileak

1. Iñigo Pagaldai (Angiozar) .......... 21 gol
2. Iñaki Mujika (Tokieder) .............. 19 gol
3. Fernando Salinero (Ogizun) ....... 18 gol
4. Fernando Agirre (Toki Eder) ....... 17 gol
5. Aitor Anton (Errotagain) ............ 17 gol

## 2. maila

| TALDEA | Punt. | J | I | B | G | Golak alde | Golak aurka |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1.** Arkupe | **31** | 17 | 15 | 1 | 1 | 93 | 39 |
| **2.** Hartu Zamat | **29** | 17 | 14 | 1 | 2 | 86 | 45 |
| **3.** Ufala | **27** | 17 | 13 | 1 | 3 | 93 | 42 |
| **4.** Etxagi | **27** | 17 | 13 | 2 | 2 | 97 | 48 |
| **5.** Ozaeta | **26** | 17 | 12 | 2 | 3 | 102 | 41 |
| **6.** Kalimotxo | **26** | 16 | 13 | 0 | 3 | 78 | 40 |
| **7.** Revienta | **26** | 17 | 13 | 0 | 4 | 70 | 45 |
| **8.** Eri | **22** | 17 | 10 | 2 | 5 | 77 | 54 |
| **9.** Ube Bikoitza | **22** | 17 | 10 | 2 | 5 | 85 | 65 |
| **10.** Amozkibar | **19** | 16 | 9 | 1 | 6 | 67 | 43 |
| **11.** Ari Ari | **18** | 17 | 9 | 0 | 8 | 73 | 81 |
| **12.** Igandekoak | **16** | 16 | 8 | 0 | 8 | 60 | 61 |
| **13.** Krai | **14** | 16 | 7 | 0 | 9 | 68 | 66 |
| **14.** Egoki | **14** | 16 | 6 | 2 | 8 | 64 | 65 |
| **15.** Txipiron | **14** | 17 | 5 | 4 | 8 | 51 | 63 |
| **16.** Paok San Juan | **13** | 15 | 6 | 2 | 7 | 49 | 49 |
| **17.** Matalascañas | **13** | 16 | 6 | 2 | 8 | 44 | 50 |
| **18.** Kirolzaleak | **13** | 16 | 6 | 1 | 9 | 61 | 78 |
| **19.** Labegaraieta | **13** | 17 | 5 | 3 | 9 | 37 | 88 |
| **20.** Aldoka Maldoka | **12** | 16 | 5 | 2 | 9 | 40 | 65 |
| **21.** Pata Negra | **11** | 17 | 5 | 1 | 11 | 47 | 86 |
| **22.** EH Biterrak | **9** | 17 | 3 | 3 | 11 | 44 | 69 |
| **23.** Los Txupeta | **8** | 17 | 3 | 2 | 12 | 35 | 66 |
| **24.** Euxebio II | **4** | 16 | 2 | 0 | 14 | 36 | 97 |
| **25.** K.K. Usaina | **0** | 16 | 0 | 0 | 16 | 28 | 118 |

### emaitzak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eri | 6 | 2 | Matalascañas |
| Ozaeta. | 2 | 1 | Revienta |
| Arkupe | 4 | 1 | Txipiron |
| Labegaraieta | 6 | 4 | KK Usaina |
| EH Biterrak | 2 | 4 | Ufala |
| Uve Bikoitza | 5 | 9 | Pata Negra |
| Eusebio II | 4 | 1 | La Txupeta |
| OH Zerezos | 1 | 6 | Madura |
| Hartu Zamat | 4 | 3 | Kirol Zaleak |
| Etxagi | 13 | 6 | Ari |

### hurrengo partiduak

• LARUNBATA •

**09.00:** Eusebio II-Kalimotxo

### golegileak

1. Ivan Agirrebeña (Ozaeta) ........... 42 gol
2. Andoitz Garitano (Arkupe) .......... 35 gol
3. Juantxo Izuskiza (Etxagi) ........... 35 gol
4. Igor Agirrezabal (Kalimotxo) ...... 31 gol
5. Joseba Larrañaga (Eri) ............... 31 gol

### Txinpartak

▼ Golegileez gain, atezainek eta euren defentsek ere bere aipamentxoa merezi dute. Lehen mailan gol gutxien jaso dituzten taldeak honako hauek dira: Errotagain liderra (11 gol), Madura (2. postuan, 11) eta Toki Eder (4.a, 27). Bigarren mailan, berriz, Arkupe liderra (39 gol), Kalimotxo (6.a, 40) eta Ozaeta (5. postuan, 41 gol).

▼ Berdinketak ez dira egunero gauza honelako txapelketa batetan. Hala ere puntutxo bat eskuratzea ez dator bat ere gaizki. Hori pentsatuko zuten berdinketa gehien lortu dituzten taldeek: Bar Canalejas, Ezinleike eta Arloteak (hiruna) lehen mailan eta Txipiron (4) eta Labegaraieta eta EH Biterrak (hiruna) bigarrenean.

▼ Badirudi karnabal larunbatak eziela *kalte* gehiegirik egin bigarren mailako lehen hiruren Arkupe, Hartu Zamat eta Ufala taldeetako jokalariak nahiko *fresko* kantxaratu omen ziren eta hirurek garaipena eskuratu zuten: Arkupek 4 eta 1 irabazion Txipironi, Hartu Zamatek 4 eta Kirolzaleaki eta Ufala, azkenik, 4 eta nagusitu zitzaion EH Biterraki. Arkupe sendo eusten dio dergoari.

## KIROL KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

• Bergara-Munibe
(Preferente maila)
Igandea, 16.30, Agorrosin.
• Bergara-Orioko
(Lehen mailako jubenilak)
Larunbata, 17.00, Ipintza.
• Bergara-Almen
(2. mailako kadeteak)
Larunbata, 15.30, Ipintza.

**ESKUBALOIA**

• Bergara-Hondarribia
(Jubenil mutilak)
Larunbata, 16.30.
• Bergara-Carmelo Donos.
(Senior mutilak)
Larunbata, 17.45.
Biak Labegaraietan.

**SASKIBALOIA**

• Bergara-Ordizia
(Kadete neskak)
Larunbata, 11.00.
• Bergara-Antzuola
(Infantil mutilak)
Larunbata 12.15.
Biak Labegaraietan.

**PELOTA**

*- Euskal Liga -*

• Bergara-Amurrio
(jubenilak binaka)
Igandea, 11.30.
Udal Pelotalekua.

*- Profesionalak -*

• Soroa III eta Oliden / Koka eta Balerdi
• Etxaniz eta Aldazabal / Lejardi eta Galarza III
• Alberdi III / Badiola II
(2. mailako txapelketakoa)
Larunbata, 16.30.
Udal Pelotalekua.

## *JOKIN ETXANIZ, pelotaria*

# "Armendarizi irabaztea sorpresa izango litzateke"

**Jokin Etxanizek aurtengo 2. mailako banakako pelota txapelketan parte hartuko du. Bergararrak Armendarizen kontra jokatuko du lehen kanporaketa.**



Etxaniz, bere esanetan, ez dago bere momenturik onenean.

**- Zelan erabaki zenuen txapelketan parte hartzea?**

- Ez nuen binakako txapelketa jokatu eta beti botatzen duzu faltan txapelketaren bat. Gainera aurreko urtetik probatzeko gogoa daukat. Jendeak animatu ninduen eta aukera hona zela erabaki nuen.

**- Eta ze asmo daukazu?**

- Izena ematen duzun momentutik zerbait positiboa egiteko itxaropena duzu. Dena den, azken partiduetan nahiko gaizki jokatzen ari naiz eta zalantzak ditut. Konfiantza galdu dut eta pare bat partidu on egitea falta zait.

**- Esperientzarik bai banaka?**

- Asko gustatu izan zait beti baina esperientzia txarra daukat orainarte. Zezeaga, Elkoro eta Errastirekin entrenatu dut orainarte eta kantxa neuk ordaindu dut guztietan. Garestia irtengo zait...

**- Zelan ikusten duzu zeure burua?**

- Defentsan ondo nabil baina ez daukat kolperik eta banaka jokatzeko hori ezinbestekoa da. Askotan gehien jokatzen duenak horrek irabazten du. Baina, tira, behintzat borrokatu eta ahal dudan guztia egingo dut.

**- Nortzuk dira faboritoak?**

- Elkoro, Lejardi, Balerdi eta Armendariz dira, printzipioz, onenak.

**- Eta zure punturik onena eta txarrena ?**

- Ezkerra ez daukat banaka jokatzeko modukoa, eskumarekin ere ez daukat kolpe gehiegirik... Onena ez dakit, hankak beharbada.

**- Non gustatuko litzaizuke jokatzea?**

- Bergaran edo Eibarren baina ziurrenik Labriten jokatuko dugu.

**- Botillero nor?**

- Egia esan oraindik ez dut erabaki nor izango den, Zezeaga edo aita beharbada.

**EGUREN**
GESTORIA
*Maria Pilar Eguren Diez*
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta enparantza 3, behea.
☎ 76 21 65 / 76 24 45



**LARRUAZALAREN AZTERKETA DOAN**
Zure azala aldatua baldin badaukazu; deshidratazioa, aknea, koipea, zimurrak, ahuldura..., nabari badituzu eta gustora ez bazaude, etor zaitez, etor zaitez lehenbailehen, zure azala **DOAN AZTERTUKO DIZUGU** zure arazoaren arrazoia ezagutzeko.
**LILURA EDERTZE INSTITUTUAN** itxaroten zaitugu.
Bidekurutzeta, 7 (lehen pisua). ☎ **76 31 71**
**Ordutegia:** Astegunetan: 9.30-20.30. Larunbatetan: 9.00-14.00.



# Aranzadi Ikastolako dantzari taldea

Ez da aspaldiko argazkia, bakarren bat oraindik bizerrik ateratzen ez zaiola ere egongo da. Hamar bat urte. Berrigara etxez etxe banatzen dutenetako asko bertan dituzue. Ez dakigu fotografoak "patata" ala "txokolate" esateko esan zien baina ez da era guztietako aurpegikerarik falta. Bada hor ezkerraldean dantzari postura peto-petorik agertzen duenik ere, eta baita atzealde hartan kantari dohairik baduela erakusten duenik ere. Ez dakigu gero noraino iritsi diren.

Hara zeintzu diren ezkerretik eskumara:

**Lehenengo ilaran:** Aitor Muruamendiaraz, Asier Gabilondo, Asier Arrieta, Ibon Unamuno, Aritz Beistegi, Arkaitz Elkoro, Xabi Garitano, Alex Bernard eta Zigor Ruiz de Egino.

**Bigarren ilaran:** Haritz Olaso, Juan Manuel Bote, Jabi Atxa, Iñaki Leturia, Xabi Larrañaga, Mendizabal eta German Arriola.

*Estepan Plazaola*

BEHEKO TABERNA
*Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.*
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak
*Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara*
ANGIOZAR ☎ 76 55 70

## ETXEBIZITZA

**Garajea** (2 plaza) hartuko nuke **alokairuan** herri erdian. ☎ 76 20 46 (Pablo).

**Etxebizitza salgai** Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

**Etxea** salgai Martokon. ☎ 76 00 93.

**Garajea** salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

**Pisua salgai** Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

Berriztutako **pisua** salgai. 55 m2. Ganbararekin (35 m2). ☎ 76 02 13 (goizez).

**Pisu amueblatua** salgai Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

**Etxea** salgai Katabian. ☎ 76 53 30.

**Garajea** salgai Iparragirren. ☎ 76 28 52.

**Pisua** salgai Zabalotegi Torrean (17. pisua). ☎ 76 33 19 (gauez).

**Pisua alokatzen** da. Bulegoak jartzeko egokia. Merkea eta egoera onean. ☎ 76 16 89.

**Etxe** bat alokatzen da San Antonion. ☎ 76 21 39.

**Pisua** salgai Matxiategin. ☎ 76 37 97.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Garajea salgai** Ibargarain. ☎ 76 36 69.

**Pisu** amueblatua salgai Bolun. Prezio interesgarria. ☎ 76 10 75 (gauez).

## DENETARIK

**Aulki hondatuei** soka berria jarri eta gogortu egiten ditugu . ☎ 79 15 96.

**Talbot Samba** (SS-S) salgai. 50.000 pta. ☎ 76 45 81.

**Nintendo** bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

**Baserri** bat hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

**Peugeot 205 GTX** kotxea salgai (SS-X). ☎ 76 09 05.

**Petrikilo**, masajista eta karta-aztia. ☎ 76 47 24 (Gonzalo).

**Golf 4X4** kotxea salgai. 2 urte. ☎ 76 47 57 (gauez).

**Onix** motorra (50 cc.) ia berria salgai. ☎ 76 43 37 (Aner).

**Sega Megadrive** kontsola salgai. 2 jokurekin. 19.000 pta. ☎ 76 25 12 (Astebukaeretan deitu).

Egunero goizez **Gasteiz**era joateko **kotxea** behar dut. ☎ 76 03 20.

**"Muy buena fisonomista"** neskari: Nor zaren jakin nahi dut. Eskertuko nizuke berriro idatziko bazenidan. Jar ezazu zure helbidea. Zure eskutitza ez dut apurtu. Luis Etxeberria. Prision de Valdemoro.

**Renault 21** TXE bat **salgai.** 1988koa. ☎ 763868.

**Artzai txakur** bat galdu da. ☎ 76 27 90.

**R-18 diesel** (familiarra) eta **Ford Fiesta** salgai. ☎ 76 33 85 (iluntzean).

Lau pertsonarentzako **bi litera** salgai. Koltxoiarekin. ☎ 76 37 29 (Martin).

**Ingeles klaseak** ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

**Peltz eskalada** ekipoa salgai. ☎ 76 18 94.

## LANA

**Gutxitu sikiko, elbarri** edota **zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 53 25.

Lanak **ordenadorez** pasatzen ditut. ☎ 797759 (Fernando).

**Pertsona zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

**Propaganda** banatuko nuke. ☎ 76 40 94 (Jaime).

**Haurrak** eta gaisoak zaindu edota etxeak garbituko nituzke. ☎ 76 45 53

**Ingelesezko klaseak** ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Haurrak** zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 50 38 (Ines).

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Emakume batek **etxeko lanak** edota **haurrak zaindu**ko lituzke. ☎ 76 27 24 (Dolores).

**Matematika** eta **fisika** klaseak. ☎ 761093 (Asier).

Latin, Euskara eta Frantses **klaseak.** ☎ 76 02 99.

## Hildakoak

***Luisa Martinez Calvo***
otsailak 11
***Claudia Etxezarreta Idiakez***
otsailak 14, 98 urte
***Marcos Gantxegi Lizarralde***
otsailak 15, 74 urte

## Jaiotakoak

***Olatz Azkarate Iztueta***
otsailak 6
***Olatz Urrutia Arruti***
otsailak 10

Atseden zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

EZPELETA
etxea
Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak
Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA
elektragintza
✔ Motorren bobinaketa
✔ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

# HALTZARI

## FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



AENOR
Produktu Zertifikatua

6 URTEKO GARANTIA

**FAGOR**

Sukalderako altzariak

## ADI ORAIN!!

**MARTXOAN ETA APIRILEAN % 40ko DESKONTUAK MODELO HAUETAN:**
***VERONA, CAPRI, LINEA, FIORE, NALIA* eta *OXFORD.***
**APROBETXA EZAZU HALTZARIk, FAGORen GARANTIAREKIN, ESKAINTZEN DIZUN AUKERA PAREGABE HAU.**